

**EKONOMIA ETA ADMINISTRAZIO KLAUSULEN ETA BALDINTZA TEKNIKOEN  
ORRIA, SAN SEBASTIÁN TURISMO/DONOSTIA TURISMOA SA-RENTZAKO  
IHESALDI TURISTIKOAK ERATZEKO ETA KUDEATZEKO ZERBITZUA  
PROZEDURA IREKI BIDEZ KONTRATATZEKO LIZITAZIOA ZUZENDU BEHARKO  
DUENA**

1. KONTRATUAREN XEDEA.....	3
2. ERAKUNDE KONTRATUGILEA ETA KONTRATAZIO ORGANOA.....	4
3. ESLEITZEKO PROZEDURA.....	4
4. ALDAERAK.....	4
5. KONTRATUKO DOKUMENTAZIOA.....	5
6. IRAUPENA.....	5
7. LIZITAZIOKO GEHIENEN PREZIO UNITARIOAK ETA KONTRATUEN BALIO ZENBATETSIA.....	5
8. PREZIOA BERRIKUSTEA.....	6
9. ORDAINBIDEA.....	6
10. BETEBEHAR FORMALAK ETA INFORMAZIOKOAK.....	7
11. BEHIN BETIKO BERMEA.....	7
12. GAITASUN BALDINTZAK.....	8
13. PUBLIZITATEA.....	10
14. PROPOSAMENAK ETA DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA.....	10
15. BALORAZIO IRIZPIDEAK.....	13
16. PROPOSAMENAK IREKITZEA.....	14
17. KONTRATUAREN ESLEIPENA.....	15
18. KONTRATUA BURUTZEA ETA FORMALIZATZEA.....	19
19. KONTRATUA GAUZATZEA.....	19
20. KONTRATISTAREN BETEBEHARRAK.....	20
21. DATU PERTSONALAK BABESTE.....	22

22. KONFIDENTZIALITASUNA.....	24
23. KONTRATUAREN ARDURADUNA.....	24
24. ASEGURUAK.....	25
25. KONTRATUA LAGATZEA.....	25
26. AZPIKONTRATAZIOA.....	25
27. KONTRATUAREN ALDAKETAK.....	25
28. KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA.....	25
29. KONTRATUA ETETEA.....	26
30. BERANDUTZEAREN ETA GAUZATZE AKASTUNAREN ONDORIOZKO ZIGORRAK.....	26
31. KONTRATUA DEUSEZTATZEA.....	27
32. ARAUBIDE JURIDIKOA ETA ESKUMENENKO JURISDIKZIOA.....	27
I. ERANSKINA. ABAL EREDUA.....	29
II. ERANSKINA. JAKINARAZPENAK JASOTZEKO LEHENTASUNEZKO BITARTEKOA AUKERATZEA.....	30
III. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNPEKO AITORPENA .....	31
IV. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNPEKO AITORPENA .....	32
V. ERANSKINA. PROPOSAMEN EKONOMIKOAREN EREDUA.....	33
VI. ERANSKINA. KANPOKO BALIABIDEEN AITORPEN EREDUA .....	34

# EKONOMIA ETA ADMINISTRAZIO KLAUSULEN ETA BALDINTZA TEKNIKOEN ORRIA, SAN SEBASTIÁN TURISMO/DONOSTIA TURISMOA SA-RENTZAKO IHESALDI TURISTIKOAK ERATZEKO ETA KUDEATZEKO ZERBITZUA PROZEDURA IREKI BIDEZ KONTRATATZEKO LIZITAZIOA ZUZENDU BEHARKO DUENA

## 1. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuaren xede da Donostia turismo-helmuga duten turismo-ihesaldiak prestatzeko eta kudeatzeko zerbitzuak eskaintzea, Orri honetan aurreikusitakoa jarraituz.

Zehazki, kontratistak zerbitzu hau eskainiko du: SAN SEBASTIÁN TURISMO/DONOSTIA TURISMOA SAK adierazitako marketineko estrategia-ildoetarako dieten ihesaldiak diseinatu eta bateratzeko (muntatu eta konfiguratu) behar diren jarduketak burutzea, eta, ondoren, SAN SEBASTIÁN TURISMO/DONOSTIA TURISMOA SAREN web-aren bitartez ihesaldi horiek eskatzen dituzten erreserbak kudeatzea.

Turismo-ihesaldiak, gutxienez, 5 gairen inguruan antolatuko dira:

1. **Ihesaldi gastronomikoak:** gutxienez ostatu hartzea + euskal gastronomiarekin lotutako jarduera uztartuko dituztenak.
2. **Premium ihesaldiak:** gutxienez ostatu hartzea + ongizatearekin lotutako jarduera uztartuko dituztenak.
3. **Kirol-ihesaldiak:** gutxienez ostatu hartzea + kirol-jarduera (ikusle eta/edo parte-hartzaile gisa) uztartuko dituztenak.
4. **Kultur ihesaldiak:** gutxienez ostatu hartzea + kultur jarduera uztartuko dituztenak.
5. **Euskal ohituren inguruko ihesaldia:** gutxienez ostatu hartzea + euskal ohiturekin lotutako jarduera uztartuko dituztenak.

Zerbitzuren barne sartuko dira ihesaldien diseinua eta bateratzea, gutxienez, baita hauen ondorengo kudeaketa ere. Horretarako, esleipenduna azken produktua osatzen duten hornitzaile guztiekin harremanetan egongo da, ihesaldian parte hartzeagatik hauei dagokien kopurua likidatuko du, eta bitartekari diferenteekin ihesaldiak merkaturatzeko lanez arduratuko da.

Proposatutako ihesaldiak hirian egonaldiak sendotzeko eta turismo-kontsumo indartzeko egingo dira, eta une oro SAN SEBASTIÁN TURISMO/DONOSTIA TURISMOA SAREN ikus-onetsia jasoko dute.

SAN SEBASTIÁN TURISMO/DONOSTIA TURISMOA SAK produktu propioak eransteko eta/edo esleipendunak proposatutako ihesaldien eskaintza hobetuko duten jarduera osagarriak proposatzeko eskubidea izango du.

Esleipendunak proposatutako ihesaldiak ez dira aldatuko, aurreko paragrafoan xedatutako kasuetan izan ezik. Bertako elementuetan aldaketak ez dira onartuko, SAN SEBASTIÁN TURISMO/DONOSTIA TURISMOA SAREN iritziz behar bezala justifikatuta dauden kasuetan izan ezik eta honek onartu ondoren.

Ihesaldiak azaldutako baldintzetan definituta eta esleipendunari kontsultatu ondoren, SAN SEBASTIÁN TURISMO/DONOSTIA TURISMOA SAK ihesaldi-mota bakoitzaren prezioak ezarriko ditu. Ostatu hartzearen eta bateratutako jardueren kostu errealari, gehienez, % 15 erantsiko zaio komisioen kontzeptu gisa.

Azkenik, ihesaldiak SAN SEBASTIÁN TURISMO/DONOSTIA TURISMOA SAREN web-orrian argitaratu eta erakutsiko dira.

Enpresa esleipendunak web horren bitartez egindako erreserba- eta informazio-eskaerak kudeatu eta erantzun beharko ditu, bezeroek eskaera horiek egiten dituztenetik, gehienez, 48 balioduneko ordutan epean. Denbora horretan erreserba bakoitzak eskatzen dituen kudeaketa guztiak gauzatu beharko ditu eskaerari behar bezala erantzuteko. Era berean, ihesaldiaren zenbateko osoa adierazten duen faktura egin beharko du, eta zenbatekoa enpresa horri ordainduko zaio. Aurrerago, ordea, SAN SEBASTIÁN TURISMO/DONOSTIA TURISMOA SARI komisioei dagokien zenbatekoa likidatu beharko dio, Orri honetako 9. klausulan adierazten den baldintzetan.

Kasu horretan, esleipenduna erabiltzaileekin harreman zuzena edukitzeko arduradun bakarra izango da.

## **2. ERAKUNDE KONTRATUGILEA ETA KONTRATAZIO ORGANOA**

SAN SEBASTIÁN TURISMO/DONOSTIA TURISMOA, SA (aurrerantzean, DONOSTIA TURISMOA) da erakunde kontratugilea.

DONOSTIA TURISMOA sozietatearen Administrazio Kontseiluaren Presidenteak da Kontratazio Organoa, aurretik Administrazio Kontseiluak erabakia hartuta. Presidenteak, hala badagokio eta aplikatzekoa den zuzenbide zibileko arauen arabera, kontratuarekin lotutako jarduketak zehatzak burutzeko egokiak iruditzen zaizkion pertsonak ahalduntzeko gaitasuna edukiko du.

## **3. ESLEITZEKO PROZEDURA**

Kontratua, prozedura ireki bidez, ekonomikoki eskaintza egokiena aurkezten duen lizitatzailerari esleituko zaio, Orri honetan ezarritako balorazio-irizpideekin bat etorruta.

## **4. ALDAGAIK**

Ez da aldagairik onartuko.

## **5. KONTRATUKO DOKUMENTAZIOA**

Esleipenaren ondoren formalizatuko den kontratuaz gain, kontratu-izaera edukiko dute Ekonomia- eta administrazio-klausulen eta Baldintza Teknikoen Orri honek eta esleipendunak aurkeztuko duten eskaintzak.

Dokumentu horiek esleipendunak sinatu beharko ditu haiek onartzen dituela frogatzeko, kontratua formalizatzeko egintzan bertan.

## **6. IRAUPENA**

Hasiera batean kontratuak bi urteko iraupena izango du, 2015eko irailaren 16tik edo formalizatzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita –data haren ondoren egiten bada–. Kontratazio Organoak urtero luzatu ahal izango du –gehienez bi urte gehiagoz–, DONOSTIA TURISMOA sozietateak kontratistari horren berri jakinarazi ondoren, indarrean den kontratuaren epearen azken bi hilabeteetan. Kontratista kontratua eta berau arautzen duen Orria betetzera behartua egongo da indarrean dagoen bitartean –luzapenak barne–.

Salbuespen moduan, kontratuaren indarraldia amaitzean, esleipendunak zerbitzua eskaintzen jarraitu beharko du, DONOSTIA TURISMOA sozietateak eskatuta, kontratuan ezarritako baldintza berberetan, baldin eta esleipen berririk egin ez bada, eta esleipen berri bat egin bitartean eskainiko du zerbitzua. Nolanahi ere, egoera hori ezin izango da kontratua amaitzen den datatik hiru hilabetetik gora luzatu .

## **7. LIZITAZIOKO GEHIENENKO PREZIOA ETA KONTRATUEN BALIO ZENBATETSIA**

Kontratuaren xede diren zerbitzuen prezioak zati finko bat eta aldakor bat edukiko ditu. Hala izanda, zati finkoari dagokion lizitazioko urteko aurrekontu maximoa HAMAZAZPI MILA (17.000) euro da, BEZ gabe. Lizitatzailleek eskaintzetan kopuru hori beherantz hobetu ahal izango dute.

Gainera, DONOSTIA TURISMOA sozietateak kontratistari kopuru aldakor bat ordainduko dio, kontratuaren xede den jardueraren hiruhileko fakturazio-bolumenaren % 5i dagokiona gehienez.

Bi kopuruak, hau da, urteko aurrekontu maximoa (zati finkoa) eta hiruhileko fakturazio-bolumenaren gaineko ehunekoa (zati aldakorra) lizitatzailleek beherantz hobetu ditzakete euren proposamen ekonomikoetan.

Lizitatzailleek kontu sail independente batean adieraziko beharko dute DONOSTIA TURISMOA sozietateak jasan beharko duen BEZa.

Lizitatzailleak eskaintzen duen prezioaren barruan daudela ulertuko dira zerbitzugintzak berezkoak dituen kontzeptu guztiei dagozkienak eta zerbitzuak egiteko baliatutako langileekin lotutako gastu guztiak (besteak beste, soldatak eta Gizarte Segurantzza,

oporak eta aparteko ordainsariak, langileen bajak edo gaixotasunak direla-eta egiten diren ordezkapenak, laneko arropak, istripu indibidualetarako aseguruak, etab.), baita zerbitzuak eragindako zerga guztiak (BEZa kanpo), gainerako aseguruak, lizentziak, baimenak eta gainerako gastu orokor guztiak ere.

Lizitatuak eskaintako prezio unitarioan ere sartuta egongo dira zerbitzua egiteko enpresa kontratistak erabili behar dituen baliabide, erreminta, informatika-tresneria eta abar.

Azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina (aurrerantzean, SPKLTB) onartzen duenaren 88. artikulua ondoetarako, kontratuaren guztizko balio zenbatetsia LAUROGEITA SEI MILA eurokoa da (86.000 €), BEZa kanpo.

Balio zenbatetsi hori SPKLTBaren 88. artikuluan aurreikusitakoaren arabera kalkulatu da, hau da, aurreko hamabi hilabeteetan esleitutako antzeko kontratuen guztizko balio erreala kontuan hartuta, eta kontratuak iraun dezakeen denbora guztiagatik zenbatuta, hots, kontratuak hasieran duen iraupenagatik gehi urtebeteko bi luzapen posibleengatik.

Emaitzako zenbatekoari DONOSTIA TURISMOA sozietateak kontratistari ordainduko dion fakturazio-bolumenaren % 5i –gehenez– dagokion zenbatekoa erantsi zaio. Zenbateko hori 90.000 euroko urteko fakturazio-bolumen baten zenbatespenaren gainean kalkulatu da.

## **8. PREZIOA BERRIKUSTEA**

Ez da prezioen berrikuspenik egingo.

## **9. ORDAINKETA MODUA ETA KOMISIOEN LIKIDAZIOA**

Hileroko ordainketak egingo dira, kontratistak kasuan-kasuan dagokion faktura aurkeztu eta gero.

Prezioaren zati finkoagatik hilero kontratistak urteko esleipenaren zenbatekoa hamabi hilerokotan zatituta ateratako emaitza ordaindu beharko du.

Enpresa kontratistak faktura luzatuko du hilero, kasuak kasu dagokion hilabetea amaitu eta hurrengo hilabeteko lehen bost egun naturalen barruan.

Zerbitzuak egin diren hilabetea amaitu eta hogeita hamar eguneko epean ordainduko du DONOSTIA TURISMOA sozietateak eskaera bakoitzean eskaintako zerbitzuen prezioa; betiere, faktura aurreko paragrafoan adierazitako epearen barruan aurkeztu bada eta DONOSTIA TURISMOA sozietateak onartu badu.

Prezioaren zati aldakorrari dagokionean, esleipendunak DONOSTIA TURISMOA sozietateari erabiltzaileengandik jasotako komisio guztiak (kostu errearen eta erabiltzaile horiek ordaindutako guztizko prezioaren arteko diferentzia) itzuli/likidatu

beharko dizkio, hiruhilabeteko bakoitza amaitu eta hurrengo hamabost egun naturalen barruan.

Komisio horien likidazioari dagokionean DONOSTIA TURISMOA sozietateak onartzen duela egiaztatuta, honek hamar eguneko epean ordainduko du esleipendunak eskaini duen hiruhileko fakturazio-bolumenaren gaineko ehunekoari dagokion zenbatekoa, esleipendunak dagokion faktura luzatu ondoren.

Ez da ordainduko agiri honen kontratu xedetik kanpo egindako lanik edo zerbitzurik, edo, hala badagokio, DONOSTIA TURISMOA sozietateak aldeztu aurretik eskatu ez duen lan edo zerbitzurik.

## **10. BETEBEHAR FORMALAK ETA INFORMAZIOKOAK**

Kontratuaren xede diren zerbitzuen kudeaketaren ordain gisa eskuratuko dituen diru-sarrereri dagokienean, esleipendunak honako betebeharrak formalak eta informaziokoak izango ditu:

- Hilabete bakoitzeko lehen hamabost egun naturalen barruan, esleipendunak DONOSTIA TURISMOA sozietateari esleipendunaren lege-ordezkaririk ziurtatu edo izenpetutako aitormen bat entregatuko dio. Bertan, aurreko hilabetean izandako diru-sarrereren kopuruaren laburpena bilduko da, egunak eta ihesaldi-motak zehaztuz. Hileko sarrereren egoera-orriak modu zehatzean adieraziko dira, DONOSTIA TURISMOA sozietateak jarraipen zehatza egiteko.
- Urte bakoitzaren lehen hogeita hamar egun naturalen barruan, esleipendunaren lege ordezkaririk ziurtatu edo sinatutako aitormen bat aurkeztuko da, aurreko urteko diru sarrereren guztizko zifrarekin, eta aurreko urteari dagokion BEZaren urteko aitormenaren kopia bat ere.

Gainera, DONOSTIA TURISMOA sozietateak goian aipatutako kontzeptuak frogatzeko egokiak iruditzen zaizkion egiaztapenak egin ahal izango ditu.

## **11. BEHIN BETIKO BERMEA**

Kontratuen esleipendunak behin betiko berme bakar eta orokor bat eratuko du, bere gain hartutako betebeharrak beteko dituela ziurtatzeko. Berme hori kontratuan kalkulaturako guztizko balioaren % 1ekoa izango da, BEZ kanpo.

Eskaintza ekonomiko onuragarriena aurkeztzen duen lizitatuak hamar egun baliodun edukiko ditu aipatutako bermea eratzeko, DONOSTIA TURISMOA sozietatearen errekerimendua jaso eta biharamunetik hasita.

SPKLTBaren 96. artikuluan aurreikusitako edozein modutan osatu daiteke bermea.

Abal moduan ezarriz gero, baldintza agiri honi l. eranskin gisa gehitu zaion ereduaren arabera izango da.

Bermea eratu izana ezin izango da egiaztatu bitarteko elektronikoen bidez.

Bermea SPKLTBaren 102. artikuluan xedatutakoaren arabera itzuliko da, behin berme epea igaro ondoren eta kontratistak kontratuko betebeharrak guztiak bete dituztenean.

Bermearen gainean esleipendunari eska dakizkiokeen zigorrak edo kalte ordainak gauzatu badira, esleipendunak bermea berrezarri edo handitu beharko du dagokion zenbatekoan. Haiek gauzatu eta hamabost egun naturaleko epea izango du. Hala egin ezean, kontratua suntsiarazteko arrazoia izango da.

Kontratuaren aldaketaren baten ondorioz haren prezioa aldatzen bada, bermea berregokitu egin beharko da, aldatutako prezio berriarekin beharrezko proportzioa gorde dezan. Enpresaburuak hamabost egun naturaleko epea izango du bermea egokitzeko, aldatzeko erabakia jakinarazten diotenetik hasita.

Agiri honetan aurreikusi gabeko guztian, SPKLTBaren 95. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoa izango da aplikatzekoa.

## **12. GAITASUN BALDINTZAK**

DONOSTIA TURISMOA sozietatearekin kontratatu ahal izango dute jarduteko ahalmen osoa duten, kontratatzekeo debekurik ez duten eta behar adinako kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa edo profesionala dutela frogatzen duten Espainiako zein atzerriko pertsona natural edo juridikoek

Enpresa lizitatzailerik, era berean, **bidaiia-agentzia handizkari-txikizkaria jarduer**a burutzeko behar duen gaitasun profesionala edo enpresakoa beharko dute.

Pertsona juridikoak kontratuaren esleipendun izango dira soilik, kontratuko prestazioak berez, dagozkien estatutuei edo sorrerako arauari jarraituz, jardueraren helburu, xede edo esparrukoak direnean.

Nolanahi ere, DONOSTIA TURISMOA sozietatearekin kontratatzekeo ahalmena izango dute Europar Batasuneko estatuetako enpresa ez espainiarrek, baldin eta ezarrita daudeneko estatuko legeriaren arabera kasuan kasuko zerbitzua betetzeko gaituta badaude. SPKLTBaren 58. artikuluan aurreikusitakoa izango da aplikatzekoa.

Enpresa horiek ezarrita daudeneko estatuko legeriak kasuan kasuko zerbitzua egin ahal izateko baimen bereziren bat eskatzen duenean, edo erakunde jakin bateko partaide izatea eskatzen duenean, baldintza hori betetzen dutela frogatu beharko dute.

Europar Batasunekoak ez diren estatuetako pertsona fisikoak edo juridikoak kasuan, jarduteko gaitasuna ziurtatzeko, dagozkien estatuan Espainiak duen diplomaziako misio iraunkorraren edo enpresak egoitza duen lurralde esparruko kontsultxeko bulegoaren txostena aurkeztuko da. Txosten horren bitartez justifikatu beharko dute atzerriko enpresaren jatorrizko estatuak funtsean modu berdintsuan onartzen duela Espainiako enpresek hango administrazioarekiko kontratazioetan parte hartzea, baita SPKLTBaren 3. artikuluan adierazitakoen pareko sektore publikoko erakunde, organismo edo entitateekiko kontratazioetan parte hartzea ere.



DONOSTIA TURISMOA sozietatearekin kontratatu ahal izango dute kasurako aldi baterako eratzen diren enpresaburuen elkarteek. Horretarako, ez da beharrezkoa izango elkarte horiek eskritura publikoan gauzatzea kontratua haien alde esleitu arte. SPKLTBaren 59. artikuluan aurreikusitakoa izango da aplikatzekoa.

Beharrezkoa denean, lizitatuzaileek ondoren adierazitako kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa eta tekniko edo profesionala dutela ziurtatuko dute:

- Azken bi ekitaldietan turismo-ihesaldien erreserben kudeaketa-zerbitzua eskaintzeko esparruan (paketeen salmenta edo salmenta konbinatua), gutxienez, 45.000 euroko –BEZ gabe– negozio-bolumena edukitzea, ekitaldi horietako bakoitzean.

Lizitatuzaileek kaudimena ziurtatzeko, honako giza baliabide eta baliabide material hauek bideratzeko konpromisoa hartuko dute, kontratuaren esleipendun suertatzen badira:

- Zerbitzuren arduradun bat; behinik behin, egiaztatutako bi urteko esperientzia izango duena antzeko ezaugarrietako postuetan, turismoko eta/edo enpresen kudeaketako titulazioa izateaz gainera.
- Zerbitzuren arduradun bat; behinik behin, egiaztatutako urte bateko esperientzia izango duena antzeko ezaugarrietako postuetan, turismoko eta/edo enpresen kudeaketako titulazioa, bidaia-agentziako erabiltzaile-mailako informatikako ezagutzak, eta euskara, gaztelania, ingeles eta frantseseko ezagutzak –ahoz eta idatziz– izateaz gainera.

Hizkuntzaren ezagutza egiaztatzeko, hizkuntzetako edozeinen B2 profila izatearen egiaztagiria aurkeztu beharko da, edo kontratuaren xede den zerbitzugintzan (hizkuntza horietan) gutxienez 2 urteko esperientzia frogatu beharko da.

- Gipuzkoako lurraldean lokal edo establezimendu bat izatea, bertatik zerbitzugintza kudeatzeko.

Konpromiso hori funtsezko kontratu betebeharra izango da SPKLTBaren 223.f) artikuluan aurreikusitako ondorioetarako. Urratuz gero, DONOSTIA TURISMOA sozietateak kontratua bertan behera uzteko eskubidea du.

Kontratua egiteko eta/edo kontratura gutxienerako giza baliabideak eta baliabide materialak atxikitzeko konpromisoa betetzeko beharrezkoa den kaudimena ziurtatzeko, beste erakunde batzuen kaudimena eta/edo baliabideak erabiliko dituzten lizitatuzaileek, erakunde horiekin dituzten harremanen izaera juridikoa edozein dela, aitoren bat aurkeztuko dute (VI. eranskineko ereduaren arabera), eta honako alderdi hauek adieraziko dituzte kontratuan inplikatzeko diren erakunde horiek: lizitatuzaileak parte hartzen duen lizitazioaren baldintzen eragina ezagutzen dutela; aipatutako kaudimena badutela –ziurtagiria aurkeztu behar da, 14. klausulan adierazten den moduan–; eta aipatutako lizitatuzailea esleipendun suertatzen bada, kontratua gauzatzeko beharrezkoak diren baliabideak uzteko borondate ezeztazina adierazten dutela (Kode Zibilaren 1257.2 artikuluan xedatutakoa berariaz onartuko dute, eta baliabiderik

ordezkatu edo aldatu behar bada, Administrazioak berariaz baimendu beharko du). Idatzia aurkezteak berekin ekarriko du DONOSTIA TURISMOA sozietateak konpromiso hori onartzen duela, baldin eta dagokion lizitatzaila esleipendun suertatzen bada.

Eskaintza ekonomiko onuragarriena aurkezten duen lizitatzailak Kontratazio Organoaren aurrean egiaztatu beharko du, kontratua esleitu aurretik, 17. klausulan eskatutako dokumentuak dituela eta horiek baliozkoak direla. Dokumentu horiek ziurtatu beharko dute DONOSTIA TURISMOA sozietatearekin kontratatzeke lege ezarritako baldintzak biltzen direla, eta klausula honetan eskatutako gaitasun eta kaudimen eskakizunak betetzen direla, proposamenak aurkezteko epearen amaiera datan. Egiaztapen hori aipatutako 17. klausulan ezarritako eran ziurtatuko da.

Dena den, Kontratazio Organoak, esleipen-proposamena hartu aurreko edozein unetan, lizitatzaila aipatutako 17. klausulan adierazitako dokumentazioa aurkez dezaten eskatu ahal izango du.

### **13. PUBLIZITATEA**

Lizitazio hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta DONOSTIA TURISMOA sozietatearen kontratugile-profilean argitaratuko da.

Kontratuaren esleipena DONOSTIA TURISMOA sozietatearen kontratatzailaaren profilean argitaratuko da.

Kontratugileak, profil horretara sartzeko, honako web orri honetara jo beharko du: [www.sansebastianturismo.com](http://www.sansebastianturismo.com).

### **14. PROPOSAMENAK ETA DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA**

Proposamenak aurkeztean, lizitatzailak ekonomia eta administrazio klausulen agiri hau eta baldintza teknikoaren agiria salbuespenik gabe eta baldintzarik gabe onartzen duela ulertuko da.

Ekonomia eta administrazio klausulen eta baldintza teknikoaren agiria DONOSTIA TURISMOA sozietatearen kontratatzailaaren profilean eskura daiteke.

Lizitazioan parte hartzeko, lizitatzailak hiru gutun-azal itxi aurkeztu behar dituzte Donostiako Boulevard 8an dauden DONOSTIA TURISMOA sozietatearen bulegoetan (10.00etatik 13:00etara), lizitazioaren azken iragarkia argitaratu eta biharamunetik hasita 15 eguneko epean. Gutun azal horietan geroago aipatuko den dokumentazioa sartuko dute, eta guztietan jarriko dute enpresaren izena, proposamenaren sinatzailearen izen-abizenak eta izaera, telefono zenbakia eta fax zenbakia eta helbide elektronikoa. Halaber, jakinarazpenak jasotzeko lehenesten den bidea adieraziko da, Orri honen III. eranskineko ereduaren arabera.

Gutun-azal bakoitzaren atzealdean honakoa adieraziko da: *“SAN SEBASTIÁN TURISMO/DONOSTIA TURISMOA, Sarentzat prozedura irekiaren bidez turismo-ihesaldien erreserbak kudeatzeko zerbitzua kontratatzeke lizitazioan parte hartzeko*

*proposamena*”. Gainera dagokion zenbakia gehitu beharko da (1. gutun-azala, 2. gutun-azala edo 3. gutun-azala, dagokionaren arabera).

Epearen azken eguna larunbata, igandea edo jaieguna bada, hurrengo egun baliodunera arte luzatuko da.

Ordutegi muga hori ez da ezarriko proposamenak postaz bidaltzen badira. Kasu horretan, proposamenak aurkezteko azken egunaren edozein ordutan egin aurkez daitezke; betiere, ondoren datorren atalean adierazitako baldintzak betetzen badira.

Lizitzaileak proposamena postaz bidaltzen baldin badu, bidali duen eguna egiaztatu beharko du postetxean, eta eskaintza posta bidez bidali duela adierazi beharko dio DONOSTIA TURISMOA sozietateari egun bereko telex, fax (ondorengo zenbakira: 943.42.81.22) edo telegrama bidez egun berean. Halaber, posta elektronikoa erabil daiteke bidalketa egiteko (honako helbide honetan: [direccionsansebastianturismo@donostia.eus](mailto:direccionsansebastianturismo@donostia.eus)). Posta elektronikoaren bidez jakinarazteak baliorik izango badu, nahitaezkoa izango da argi jasota egotea bai bidali izana, bai jaso izana, bai datak eta bai komunikazioen eduki osoa ere. Halakoetan, kopia bat inprimatu eta erregistratu egin beharko da, gero espedienteari eransteko.

Baldintza horiek betetzen ez badira edo bidali izanaren jakinarazpena proposamenak hartzeko ezarritako epea eta ordua igaro ondoren iristen bada, eskaintza ez da onartuko. Haatik, aipatutako egunetik hamar egun naturaleko epean dokumentaziorik jaso ez bada, ez da gehiago onartuko.

Dokumentu guztiak zerrendatzen dituen orri aske bat aurkeztuko da gutun-azal bakoitzean eta, horrekin batera, jarraian adierazi diren dokumentuak gaineratuko dira:

### **1. gutun-azala.- “KONTRATATZEKO GAITASUNA”**

a) Gutun-azalean sartutako dokumentazioaren zerrenda zenbakitua, aparteko orri batean; gainera, telefono- eta fax-zenbakiak, eta posta elektronikoko helbidea. Halaber, jakinarazpenak jasotzeko lehenesten duten bidea adieraziko da, orri honen II. eranskineko ereduaren arabera. Hori guztia modu irakurterrazean idatzita.

b) Lizitzailearen erantzukizunpeko aitortpena, III. eranskinera egokitutakoa. Bertan adieraziko du DONOSTIA TURISMOA sozietatearekin kontratatzeke lege ezarritako baldintza guztiak eta orri honen 12. klausulan eskatutako gaitasun- eta kaudimen-baldintza guztiak betetzen dituela.

Enpresa atzeritarren kasuan, aipatutako erantzukizunpeko aitortpenean, adierazitako III. eranskinen aurreikusitako eran, espresuki adierazi beharko dute Espainiako edozein mailako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jartzen direla, kontratuaren ondorioz zuzenean zein zeharka sor litezkeen gorabehera guztietarako; edozein kasutan, lizitzaileari legokiokeen atzerriko jurisdikzio foruari uko eginda.

Era berean, lizitzailea beste lizitzaile baten/batzuen enpresa talde berekoa izanez gero (halakotzat hartuta Merkataritzako Kodearen 42. artikuluan jasotako kasuren batean daudenak), 2. atalean aipatzen den aitortpenean inguruabar hori jasoaraziko da, eta

taldeko beste lizitatzailerak/lizitatzailerak identifikatuko dira, III. eranskinean aurreikusitako eran.

c) Zenbait enpresaburuk aldi baterako elkarte batean sartuta lizitazioan parte hartu nahi izanez gero, hura osatuko duten enpresaburu guztiek aurkeztu beharko dute 2. atalean adierazitako aitorpena.

Gainera, dokumentu pribatu bat aurkeztu beharko dute, guztiek sinatutakoa. Bertan adieraziko dituzte hura osatzen dutenen izenak eta inguruabarrak eta bakoitzaren parte-hartzea, eta, esleipendun suertatuz gero, bere gain hartzen dutela aldi baterako elkarte gisa eratzeko konpromisoa eta elkarrearen ordezkari edo ahaldun bakarra izendatzeko konpromisoa. Horrek ahalorde askietsiak izango ditu kontratuaren ondoriozko eskubideak baliatzeko eta betebeharrak betetzeko hura iraungi arte.

d) Kontratuaren esleipendun suertatuz gero, Orri honetako 12. klausulan aipatutako giza baliabide minimoak kontratua gauzatzeko atxikitze konpromisoa (VI. eranskinean jasotako ereduaren arabera).

Konpromiso hori funtsezko kontratu betebeharra izango da SPKLTBaren 223.f) artikuluan aurreikusitako ondorioetarako. Urratuz gero, DONOSTIA TURISMOA sozietateak kontratua bertan behera uzteko eskubidea du.

Atzerriko enpresek dokumentazio guztiaren gaztelaniarako edo euskararako itzulpen ofiziala aurkeztuko dute.

## **2. gutun-azala.- “PROPOSAMEN TEKNIKOA”**

Dokumentu hauek edukiko ditu:

a) Memoria teknikoa, honako alderdi hauek barne hartuta, gutxienez:

- Laneko planaren deskribapen- eta azalpen-metodologia, zerbitzuen definizioa eta kontratuko zerbitzuak gauzatzeko xehetasunak.

Halaber, bezero zuzena ez den beste erabiltzaile batzuei (beste agentzia batzuk, eta abar) ihesaldiak dinamizatzeko eta komertzializatzeko proposamenak barne hartu ahal izango dituzte.

- Lan-taldearen antolakuntza.
- Proposatutako ihesaldien konfigurazioaren deskribapen osoa eta zehatza, hornitzaileak zehaztuz –ostatuak, turismo-zerbitzuak, eta abar–.

Orri honetako 1. klausulan eskatutako minimoez gain, lizitatzailerak beste ihesaldi-eskaintza batzuk proposatu ahal izango ditu.

Era berean, Orri honetako 1. klausulan bildutako ihesaldien konfigurazioan eskatutako minimoez gain, ihesaldietan beste elementu batzuk sartzeko proposatu ahal izango dute.

- Hala badagokio, erreserbak kudeatzeko sisteman hobekuntzak proposatzea (adibidez, salmentak automatizatzea).

b) Giza baliabideak:

12. klausulan eskatutako minimoez gain, kontratua gauzatzeko lizitzailea atxikitze konprometitzen den giza baliabideen deskribapena.

DONOSTIA TURISMOA sozietateak lizitzaileek aurkeztutako informazioa egiazkoa dela ziurtatzeko beharrezkotzat jotzen dituen egiaztapen lanak egiteko edo dokumentazioa eskatzeko eskubidea erreserbatuta du.

### **3. gutun-azala.- "PROPOSAMEN EKONOMIKOA"**

Lizitzaileek proposamen ekonomikoa egin beharko dute, agiri honen V. eranskin gisa barne hartutako ereduaren arabera.

## **15. BALORAZIO IRIZPIDEAK**

Balorazio-irizpideak, garrantzi handienekotik txikienera antolatuta, honakoak dira:

### **1. Proposamen teknikoa:** gehienez ere 80 puntu:

- a) Memoria teknikoa: gehienez ere 70 puntu.

Laneko planaren deskribapen- eta azalpen-metodologia, zerbitzuen definizioa, lantaldearen antolakuntza, eta proposatutako ihesaldien konfigurazioaren deskribapen osoa eta xehatua baloratuko dira. 30 puntu.

Bereziki honako hauek baloratuko dira:

Bezero zuzenak ez diren beste erabiltzaile batzuei ihesaldiak dinamizatzeko eta komertzializatzeko proposamenak: 10 puntu

Orri honetako 1. klausulan eskatutako minimoez aparteko ihesaldien balizko proposamena: 15 puntu

Orri honetako 1. klausulan bildutako ihesaldien konfigurazioan eskatutako minimoez gain, ihesaldietan beste elementu batzuk sartzeko proposamenak. 10 puntu.

Erreserbak kudeatzeko sistema hobetzeko proposamen posibleak (adibidez, salmenta automatizatzea): 5 puntu.

- b) Giza baliabideak: 10 puntu arte.

12. klausulan eskatutako minimoez gain, kontratua gauzatzeko atxikiko diren giza baliabideen osaera eta kualifikazioa baloratuko dira.

Proposamen ekonomikoa baloratu ahal izateko, proposamen teknikoaren guztizko balorazioan gutxienez 50 puntu eskuratu behar dira.

## 2. Proposamen ekonomikoa: gehienez 20 puntu arte.

Honako modu honetan baloratuko da:

- a) Urteko aurrekontua: gehienez 10 puntu arte.

Eskaintza ekonomikoari dagozkion puntuak irizpide automatiko gisa baloratuko dira jarraian ezartzen den honako formula honen bitartez:

$$Ptn = \frac{(PI - On)}{(PI - O1)} \times Pto.$$

Non: PI= orrian ezarritako gehienezko prezio unitarioa; Pto= gehienezko puntuazioa; O1 = onartutako eskaintzarik baxuena; On = lizitatzailerik bakoitzak eskaintutako kantitatea; Ptn = Lizitatzailerik bakoitzak lortutako puntuazioa.

- b) Fakturazio-bolumenaren gaineko portzentajea: gehienez 10 puntu arte.

Hiruhileko fakturazioko bolumenaren % 5eko portzentajea eskaintzen duen proposamenak 0 puntu lortuko ditu, eta gainerakoei, ehuneko txikiena eskaintzen duen eskaintzaren eta % 5en artean proportzionalki kalkulaturako puntuazioa esleitu zaie, guztira 10 puntutara heldu arte.

## 16. PROPOSAMENAK IREKITZEA

Teknikariek 1. gutun-azalean barne hartutako agiriak baloratuko dituzte, garaiz eta taxuz, eta konpon daitekeen akatsik edo ez egiterik antzemanaz gero, hiru egun balioduneko epea utziko dute, gehienez ere, lizitatzailerik bakoitzak akats edo ez egite horiek konpontzeko.

Dokumentazioaren kalifikazioa egin eta, hala badagokio, antzemandako akatsak edo ez egiteak konpondu eta gero, 2. gutun-azala ("proposamen teknikoa") irekiko da, berori aztertu eta baloratzeko.

Proposamen ekonomikoa jasotzen duen 3. gutun-azalaren irekiera publikoki egiaztatuko da eta, xede horrekin, proposamen publikoak irekitzeko egintza publikoaren data, ordua eta lekua jakinaraziko zaie onartutako lizitatzailerik guztiei, III. eranskinaren arabera jakinarazpenak egiteko aukeratu duten baliabidea erabiliz. Inguruabar horiek, era berean, DONOSTIA TURISMOA sozietateko kontratugilearen profileen argitaratutako dira, 48 ordu lehenago gutxienez.

Proposamen ekonomikoak irekitzeko egintza publikoaren hasieran, proposamen teknikoaren balorazioaren emaitzak jakinaraziko zaizkie bertaratu diren lizitatzaillei.

DONOSTIA TURISMOA sozietateko teknikariek proposamenak irakurri eta gero, baztertu egingo dira Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra (aurrerantzean, APKLEO) onartzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 84. artikuluan jasotako kausetakoren batean sartuta daudenak.

Proposamen ekonomikoak irekitzeko egintza publikoa amaitu ondoren, haiek aztertu eta baloratuko dira.

Teknikariek aurkeztu diren –eta neurrigabetzat edo ezohikotzat jo ez diren aurkeztutako proposamenak beheranzko ordenan sailkatuta– proposamenen zerrenda bidaliko diote Kontratazio Organoari, 15. klausulan ezarritako balorazio-irizpideak jarraituz, eta eskaintza ekonomiko abantailatsuena identifikatuko dute.

Proposamena egin aurretik, esleipenari buruz nahi beste txosten tekniko eskatu ahal izango ditu.

Teknikarien proposamenaren txosten juridikoa egingo da.

Teknikariek proposamen ekonomiko abantailatsuena identifikatzeak ez du eskubiderik sortzen proposatutako lizitatzaillearen alde.

## **17. KONTRATUAREN ESLEIPENA**

Esleipenerako lizitatzaila aukeratzeko, Kontratazio Organoa bat etorriko da, oro har, DONOSTIA TURISMOA sozietateko teknikariek egindako proposamenarekin. Aitzitik, Kontratazio Organoak proposamenetik aldentzeko erabakia arrazoitu behar du eta, hala badagokio, proposamenak behin betiko identifikatuko ditu.

Kontratazio Organoak jarraian adieraziko den dokumentazioa eskatuko dio eskaintza ekonomiko onuragarriena egin duen lizitatzailari, eta lizitatzailleak 10 egun balioduneko epea edukiko du aurkezteko, horretarako jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita:

a) Honako eskakizun hauek betetzearen ziurtagiriak: DONOSTIA TURISMOA sozietatearekin kontratatzeke lege ezarritako baldintza guztiak eta Orri honen 12. klausulan eskatutako gaitasun- eta kaudimen-baldintza guztiak, jarraian adierazten den eran. Aldi baterako elkarre batean sartuta parte hartu nahi duten enpresaburuek proposamena aurkeztuz gero, aipatutako dokumentazioak elkarre osatu behar duten enpresa guztiena izan behar du:

**1.** Enpresariaren edo, hala badagokio, bere ordezkariaren nortasuna eta jarduteko gaitasuna ziurtatzen duten agiriak:

- Pertsona juridikoak diren enpresaburuen kasuan, enpresako eskritura edo eratze dokumentua, estatutuak edo eratze egintza aurkeztu behar dira jarduteko gaitasuna ziurtatzeko (dokumentu horietan zehazten dira jarduera arautzen duten arauak).

Dokumentu guztiak dagokien erregistro publikoan behar bezala inskribatuta egongo dira, pertsona juridikoaren izaeraren arabera.

- Europar Batasuneko kide diren estatuetakoen enpresaburu ez espainolen jarduteko gaitasuna ziurtatzeko, berriz, finkatuta dauden Estatuak legeriaren arabera dagokien Erregistroan izena emanda daudela ziurtatu behar da, edo, bestela, zinpeko aitortzen edo ziurtagiri bat aurkeztu beharko da, betiere aplikatzekoak diren Europar Erkidegoko xedapenei jarraituz.
- Atzerriko gainerako enpresaburuak jarduteko gaitasuna ziurtatzeko, dagokien estatuan Espainiak duen diplomazia misio iraunkorraren txostena beharko da, edo enpresaren egoitza dagoen lurralde esparruko kontsularen bulegoarena. Txosten horren bitartez justifikatu beharko dute atzerriko enpresaren jatorrizko estatuak funtsean modu berdintsuan onartzen duela Espainiako enpresek hango administrazioarekiko kontratazioetan parte hartzea, baita SPKLTBaren 3. artikuluan adierazitakoaren pareko sektore publikoko erakunde, organismo edo entitateekiko kontratazioetan parte hartzea ere.
- Pertsona fisikoak diren enpresaburuak kasuan, nortasun agiria nazionala edo dagokien estatuak agiri baliokidea aurkeztuko da jarduteko gaitasuna ziurtatzeko.
- Ordezkeri gisa aurkezten diren pertsonak, edo proposamenak beste norbaiten izenean sinatzen dituztenek, nortasun agiri nazionalaren kopia aurkeztuko dute, bai eta dagokien ahalorde nahikoa ere. Enpresa pertsona juridikoa bada, Merkataritza Erregistroan inskribatuta egongo da ahalordea, Merkataritza Erregistroaren Araudiko 94. artikuluan aurreikusitakoak horrela eskatzen badu, edota, hala badagokio, dagokion erregistro publikoan aurreikusitakoak eskatzen badu, dagokion pertsona juridiko motaren arabera.
- Aldi baterako enpresa elkarte batean bilduta aurkeztu nahi duten enpresaburuak elkartearen eratzeko izenak eta ezaugarriak, eta bakoitzaren partaidetza adierazi beharko dituzte. Esleipendun suertatuz gero, aldi baterako enpresa elkartearen eratzeko konpromisoa hartzen dutela ere adierazi beharko dute. Aldi baterako elkarte batean bilduta esku hartu nahi duten enpresaburuak solidarioki behartuta egongo dira, eta elkartearen ordezkari edo ahalguztari bakarrik izendatu beharko dute. Ordezkari edo ahalguztari horrek kontratuaren ondorioak eskubideak baliatzeko eta betebeharrak betetzeko behar besteko ahalordeak izango ditu kontratua iraungi artean. Dena dela, ahalorde erkidetuak ere eman ahal izango dituzte zenbaterako handi samarrekiko kobrantzak eta ordainketak egiteko.

Jatorrizko dokumentazioa aurkeztuko da, edo behar den bezala konpultatu edo legezatu diren kopiak.

**2.** SPKLTBaren 60.1. artikuluan kontratuak egiteko ezartzen diren debekuetako batean ere ez dagoela adierazten duen lizitazioaren aitortzen erantzulea, IV. eranskinean azaltzen den ereduaren arabera.

**3.** Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatearen egiaztagiria.



4. Bidaia-agentzia handizkari-txikizkariaren jarduera burutzeko behar den gaikuntza dutela frogatzea.

5. Beharrezkoa denean, enpresa lizitzaileek 12. klausulan adierazitako kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa eta teknikoa edo profesionala dutela ziurtatuko dute.

Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa eta teknikoa edo profesionala honela ziurtatuko da:

- Azken bi urteetan turismo-ihesaldien erreserben kudeaketa-zerbitzua eskaintzeko esparruan (paketeen salmenta edo salmenta konbinatua), gutxienez, 45.000 euroko –BEZ gabe– negozio-bolumena edukitzea, ekitaldi horietako bakoitzean.
- Azken bi urteetan egindako zerbitzu nagusien zerrenda, kontratuaren xede diren zerbitzuen antzekoak; haien zenbatekoa, datak eta hartzailea, publikoa edo pribatua, adierazita.

6. Kontratua gauzatzeko eskaintzan adierazitako giza baliabideak eta baliabide materialak benetan esleitu izanaren egiaztagiria.

Kontratua gauzatzeko atxikitako giza baliabideei dagokienean –12. klausulan aipatzen den gutxienekoari gehituta, nahiz 13. klausulan xedatutakoaren arabera giza baliabide gehiago bezala–, aukeratutako lizitzaileak honako dokumentazio hau aurkeztu beharko du:

- Atxikitako talde guztiaren izenak, curriculum vitaeko fitxekin batera. Bertan honakoa adieraziko da:
  - Titulazio akademiko ofiziala
  - Dagokion esparruan esperientzia
  - Hizkuntzekin lotura eskatutako baldintzak betetzea.
- Giza baliabide horiek guztiak benetan eskura jarriko dituztela egiaztatzen duen dokumentazioa.
- Lizitzaileak, Gipuzkoako lurraldearen barruan, atxikitako konpromisoa hartzen duen lokala edo establezimendua identifikatzea, lizitazio honen xede den zerbitzugintzatarako esleipendun suertatuz gero.

DONOSTIA TURISMOA sozietateak lizitzaileek aurkeztutako informazioa egiazkoa dela ziurtatzeko beharrezkotzat jotzen dituen egiaztapen lanak egiteko edo dokumentazioa eskatzeko eskubidea erreserbatuta du.

Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan (aurrerantzean, DBLO) aurreikusitakoaren arabera, eta giza baliabideei lotuta aipatutako dokumentazioan jasotako informazioaren izaera kontuan hartuta, honakoa adierazten da: (i) lizitatzailerak bakoitzak datuak datu pertsonal moduan bildu eta erabiliko ditu, Tratamenduaren Arduradun den aldetik; eta (ii) proposamenaren zati bat bezala DONOSTIA TURISMOA sozietateari lizitatzailerak bakoitzak entregatuko dizkio, lagatzaile den aldetik.

Helburu horretarako, aurreko paragrafoan aipatutako datuen tratamendurekin eta lagapenarekin lotuta DBLOan xedatutakoaren arabera lizitatzailerak bakoitzak betebeharrak guztiak bete beharko ditu. Bereziki, eta Tratamenduaren Arduradun gisa dagozkien beste betebeharrak batzuen kalterik gabe, lizitatzailerak DBLOaren 11. artikuluan aurreikusitakoa bete beharko dute, eta datu horiek lagatzeko interesdunek alde aurretik baimena eman dezaten lortu beharko dute. Alderdi hau DONOSTIA TURISMOA sozietatearen aurrean behar bezala egiaztatu beharko dute hala egitea eskatzen zaienean.

Konpromiso hori funtsezko kontratu betebeharrak izango da SPKLTBaren 223.f) artikuluan aurreikusitako ondorioetarako. Urratuz gero, DONOSTIA TURISMOA sozietateak kontratua bertan behera uzteko eskubidea du.

7. Hala badagokio, aitortzea aurkeztuko da, lizitatzailerak eskatzen den kaudimena duela eta/edo eskatutako giza baliabideak eta baliabide materialak dituela ziurtatzeko beste erakunde baten kaudimena erabiliko badu, VI. eranskinean jasotako ereduaren arabera.

8. Aldi baterako enpresa-elkarte bat bada, lege-eratzearen eskrituraren kopia.

Atzerriko enpresek berriazko aitortzea aurkeztu beharko dute. Bertan, kontratuaren ondorioz zuzenean edo zeharka sor daitezkeen gorabehera orotarako, Espainiako edozein mailatako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jarriko direla eta, hala badagokio, atzerriko jurisdikzio foruari uko egingo diotela adieraziko dute.

#### **Oharrak:**

- Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialean edo Estatuko Lizitatzailerak eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean inskribatuta dauden lizitatzailerak, bestalde, erregistroaren ardura duen legelariak emandako ziurtagiriaren kopia konpultsatua aurkez dezakete, a) atal honetan aipatutako dokumentazioaren orde. Inskripzio-ziurtagiarekin batera, lizitatzailerak ziurtagiriak adierazitakoa aldatu ez dela adierazten duen erantzukizunpeko aitortzen sinatu bat aurkeztuko du.
- Atzerriko enpresek dokumentazio guztiaren gaztelaniarako edo euskararako itzulpen ofiziala aurkeztuko dute.
- DONOSTIA TURISMOA sozietateak lizitatzailerak aurkeztutako informazioa egiazkoa dela ziurtatzeko beharrezkotzat jotzen dituen egiaztapen lanak egiteko edo dokumentazioa eskatzeko eskubidea erreserbatuta du.

b) Orri honen 11. klausulan aurreikusitako behin betiko bermea eratu dela ziurtatzen duen frogagiria.

c) Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean lizitazioaren iragarkia argitaratzeagatik sortutako gastuak ordaindu izanaren egiaztatzea.

d) Aseguru polizaren kopia, orri honen 24. klausulan eskatutakoaren arabera.

Epearen barruan aipatu berri den dokumentazioa aurkezten ez bada, lizitatuak bere eskaintza atzera bota duela ulertuko da. Horrela bada, dokumentazio bera eskatuko zaio hurrengo lizitatuari, eskaintzen sailkapenaren hurrenkeran.

Kontratazio Organoak aipatutako dokumentazioa (behar bezala zuzenduta, hala badagokio) jaso eta hurrengo bost egun baliodunetan erabakiko du kontratuaren esleipena; eta gehienez ere bi hilabeteko epea edukiko du, proposamenak irekitzen diren datatik hasita.

Esleipena ebatzen arrazoitu bidez erabakiko du Kontratazio Organoak, eta lizitatuari jakinaraziko zaie, agiri honen III. eranskin gisa gaineratutako eredu adierazitako balibidearen arabera. Aldi berean, DONOSTIA TURISMOA sozietateko kontratugilearen profileen argitaratuko da.

## **18. KONTRATUA BURUTZEA ETA FORMALIZATZEA**

Kontratua formalizatzean osatuko da.

Kontratua dokumentu pribatuan formalizatuko da hamabost egun balioduneko epearen barruan, lizitatuak eta esleipendunak esleipenaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita.

Hala ere, esleipendunak kontratuaren eskritura publikoa egiteko eska dezake. Kasu horretan, bere kontura izango dira formalizazio gastuak.

Kontratazio egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, kontratua adierazitako epearen barruan formalizatu ez bada, DONOSTIA TURISMOA sozietateak hurrengo lizitatuari edo lizitatuari eska dakioke edo dakieke agiri honen 17. klausulan adierazten den dokumentazioa eta hamar egun balioduneko epea utziko zaio dokumentazio hori aurkezteko.

## **19. KONTRATUA GAUZATZEA**

Kontratua kontratistaren arriskuz eta ausaz gauzatuko da.

Zerbitzua gauzatzean, zorrotz heldu beharko zaie agiri honetan jasotako hitzarmenei, oro har aplikatzeko den araudiari eta, betiere, kontratatutako zerbitzuen berezko arau teknikoari, baita, horien interpretazio teknikoan, DONOSTIA TURISMOA sozietateak edo, hala badagokio, kontratuaren arduradunak kontratazio emandako jarraibideei ere.

DONOSTIA TURISMOA sozietateak kontratu betebeharrak zuzen betetzen direla eta guztiak behar bezala gauzatzen direla kontrolatu, egiaztatu eta gainbegiratu dezake, edozein unetan eta edozein baliabide baliatuz.

Xede horrekin, DONOSTIA TURISMOA sozietateak egokitzen dituen kanpo laguntzak jasoko ditu, kontratu betebeharrak behar den bezala betetzen direla egiaztatzeko edo ikuskapena egiteko, baita zerbitzua kalitate maila egokiaz egiten dela egiaztatzeko ere.

Enpresa kontratistak ez du oztoporik jarriko DONOSTIA TURISMOA sozietateak egiten dituen ikuskapen eta kontrol lanetan.

Enpresa kontratistak lan-esparruan indarrean dauden xedapenak bete beharko ditu, baita Gizarte Segurantzaren eta laneko arriskuen prebentzioaren esparruan indarrean daudenak ere, zerbitzua gauzatzeko erabiliko diren langileei dagokienez.

Kontratistaren ardura da, halaber, langileek segurtasun, higiene eta laneko osasunaren alorretan indarrean dagoen araudia betetzen dutela ziurtatzea.

Langile guztiak kontratistaren mendekoak dira. Kontratistarenak dira bere enpresa-izaerari dagozkion eskubideak eta betebeharrak eta ezin izango zaio DONOSTIA TURISMOA sozietateari erreklamaziorik egin dagozkion lan harremanengatik edo gainerako betebeharrengatik.

Kontratista izango da arduradun bakarra zerbitzua gauzatzeko ardura duten langileekin –langile propioekin edo noizean behin azpikontratitzen direnekin– lotutako edozein ezbehar edo erreklamazioren aurrean (judiziala edo estrajudiziala). DONOSTIA TURISMOA sozietateak ez du lan erantzukizunik (laneko segurtasun, higiene eta osasunarekin lotutakorik), ezta Gizarte Segurantzarekin edo zerga esparruarekin lotutako erantzukizunik ere, kontratistak zuzenean edo zeharka hartzen dituen betebeharrak dagokienez. Modu berean, kontratistak bere gain hartuko ditu zerbitzua eskaintzean gerta daitezkeen ezbeharrek eragindako erantzukizunak.

Kontratistak, nolahi ere, lanak ondo egiteko beharrezkoak diren tresneria edo baliabide osagarriak jarri beharko ditu; eta bere betebeharrak betetzeko behar dituen langileak kontratatu beharko ditu. Gainera, dituen langileekiko, lanaren eta segurtasunaren arloan indarrean dauden xedapenak bete beharko ditu.

Era berean, kontratistak DBLOan, eta berori garatzeko araudiak xedatutakoaren ondoriozko betebeharrak beteko ditu, datu pertsonalik tratatzen badu kontratua indarrean dagoen bitartean, bere jardueren esparruan eta bere kontura eta bere erabakiz, tratamendu horren arduradun den aldetik; orri honen 21. klausulan berariaz ezarritakoaz gainera bete beharko da hori guztia.

## **20. KONTRATISTAREN BETEBEHARRAK**

Honako betebeharrak edukiko ditu kontratistak:

- Kontratua bere klausulek, Orri honek eta Kontratazio Organoak kontratistari ematen dizkion jarraibideei zorrotz lotuta betetzea.
- 48 orduko epean, gehienez, erreserba- eta informazio-eskaerak kudeatzea eta erantzutea.
- Esleipendunak kudeatutako eskaerei, gutxienez, [www.sansebastianturismo.com](http://www.sansebastianturismo.com) web orria eskaintzen den hizkuntzetan erantzutea, hau da, gaztelaniaz, euskaraz, ingelesez eta frantsesez.
- Zerbitzua segidan eta etenik gabe eskaintzea, ihesaldia osatzen duten jarduera edo zati guztiak gauza daitezkeela bermatuz.
- Ihesaldi bakoitzaren edukiak eta baldintzak errespetatzea, DONOSTIA TURISMOA sozietatearen web orrian adierazten diren moduan.
- Eskaintzan hitzemandako giza baliabide eta baliabide material guztiak kontratura atxikitzea.
- Produktuaren azken arduradun den aldetik, bezeroen kexa eta erreklamazioei arreta eskaintzea eta erantzutea.
- Orri honen 9. klausulan adierazitako baldintzetan, eskainitako zerbitzuaren kostu errealaren eta bezeroak ordaindutako guztizko prezioaren artean sortutako komisioak DONOSTIA TURISMOA sozietateari ordaintzea.
- Behin betiko bermea ezartzea, agiri honen 11. klausulan ezarritako baldintzetan.
- Erantzukizun zibileko aseguru poliza sinatu eta mantentzea, agiri honen 24. klausulan jasotako baldintzetan.
- Hilero DONOSTIA TURISMOA sozietateari ihesaldi-mota bakoitzean egindako salmenten inguruko informazio estatistikoa ematea, eta, urtean behin, negozioen kopuruari buruzkoa, Orri honetako 10. klausulan bildutako baldintzetan.
- Langileak ordezkatzeko dagokien lana beharrezko ardura eta eraginkortasunez egiten ez badute, gaitasun nahikoa ez badute, zerbitzuak egitean ardura nahikoa ez badute edo kontratua ondo gauzatzeko ekintza kaltegarriak egiten badituzte. DONOSTIA TURISMOA sozietateak errekerimendua egin eta gehienez ere bi eguneko epean egingo dira ordezkapenak. Langileak ordezkatzeko kasuetan DONOSTIA TURISMOA sozietateak ez du inolako erantzukizunik izango enpresa esleipendunaren eta eraginpean dauden langileen artean, baina ordezkapena egiteko DONOSTIA TURISMOA sozietatearen baimena beharko dute.
- Bajen ondorioz –gaixotasun, aldi baterako ezintasun, opor, baimen, istripu, eta abarreatutako bajak- lanera bertaratzen ez diren langileak ordezkatzeko, eta kontratatutako zerbitzuak modu eraginkorrean egingo direla ziurtatzea. DONOSTIA TURISMOA sozietateak eskaera egin eta gehienez ere hogeita lau orduko epean egingo dira ordezkapenak. Ordezkapen horiek egiteko DONOSTIA TURISMOA sozietatearen ikus-onetsia beharko da.

- Greba egonez gero, zerbitzua betetzea. Zerbitzua hori bermatuko ez balitz, DONOSTIA TURISMOA sozietateak eskumena du hura estaltzeko behar diren kontratuak sustatzeko. Horrelakoetan, bere fakturaziotik kenduko dira aipatutako kontratuei dagozkien zenbatekoak.
- Kontratura zerbitzua behar bezala egiteko beharrezko giza baliabideak zuzentzea eta, hala badagokio, laguntzako giza baliabideak gehitzea, kontratuaren indarraldian lan kargan izan daitezkeen aldaketak direla-eta, litezkeen luzapenak barne direla.
- Zerbitzugintzarako beharrezkoak diren baimen eta lizentzia guztiak kudeatu eta lortzea (haren kontura izango dira sortzen diren gastuak nahiz bestelako tasak eta zergak).
- Dagokion arloa dela-eta, aplikatzekoa zaion araudi sektoriala betetzea, baita konfidentzialtasun betebeharra ere, agiri honen 22. klausulan jasotakoaren arabera.
- Bere gain hartutako betebeharrak egoki gauzatu eta betetzeko beharrezkoak edo komenigarriak diren jardun guztiak aurrera eramatea, konpentsazio osagarririk jasotzeko eskubiderik gabe.

Klausula honetan barne hartutako betebeharrak kontratu betebehartzat hartuko dira SPKLTBaren 223.f) artikuluan jasotako ondorioetarako. Horiek urratzea kontratua deuseztatzeko arrazoi izan daiteke, DONOSTIA TURISMOA sozietateak nahi badu.

## **21. DATU PERTSONALAK BABESTEIA**

Kontratazio honen xede diren zerbitzuak eskaintzeko, honako alderdi hauek hartuko dira kontuan: (i) kontratistaren aldetik, DONOSTIA TURISMOA sozietatearen kontuko datu pertsonalen tratamendua; eta (ii) DONOSTIA TURISMOA titular den fitxategietara erantsitako datu pertsonalak kontratistaren esku egotea.

Testuinguru horretan, kontratista behartuta dago honako hauetan xedatutakoa betetzera: DBLOa (bereziki, haren 9., 10. eta 12. artikuluetan adierazitakoa); 1720/2007 Errege Dekretua, abenduaren 21ekoa, DBLOa garatzeko araudia onartzen duena (aurrerantzean, DBLOA); eta arau horiek garatzeko gainerako xedapenak.

Hala, DBLOren arabera, kontratistak, tratamenduaren arduradun gisa, obligazioa du DONOSTIA TURISMOA sozietatearekin datuak eskuratzeko dagokion kontratua hitzartzeko, DBLOren 12. artikuluan eta DBLOren 20. artikuluan adierazten den edukia eta eragina barne hartuta.

Datuak eskuratzeko kontratu hori DONOSTIA TURISMOA sozietatearen eta kontratistaren artean zerbitzugintzako kontratua sinatzen den aldi berean izenpetu beharko da.

Nolanahi ere, datuak eskuratzeko aipatutako kontratuan horri buruz ezartzen dena kontuan izan gabe, lizitazio honen xede den kontratazioa dela-eta, kontratista behartuta dago honako aurreikuspen hauek betetzera:

- DBLOn, DBLOAn eta kontratua esleitzen den unean edo kontratuaren indarraldiak irauten duen bitartean indarrean dauden gainerako garapen-arauetan xedatzen dena.
- Eskuragarri dituen datuak eta/edo DONOSTIA TURISMOA sozietatearen kontura tratatutako dituen datuak erabiliko ditu, kontratatutako zerbitzuak gauzatzeko helburu bakarrarekin. Datu horiek ezingo dira aipatutakoak ez diren beste helburu batzuetarako erabili.
- DBLOren 5. eta 6. artikuluetan aurreikusitako interesdunari informazioa emateko eta baimena lortzeko betebeharrak.

Ondorio horietarako, beharrezkoak dituen baliabideak erabiliko ditu (adib.: klausula informatzaileak formularioetan eta interesdunari dagokienez erabili beharreko dokumentuak eta abar), eta honako hau adieraziko da: (i) datuen tratamendua DONOSTIA TURISMOA sozietateak egiten duela; (ii) orri honen xede diren zerbitzuak eskaintzean jasotako datu pertsonalak DONOSTIA TURISMOA sozietatearen titulartasuneko fitxategi batean gordeko direla; eta (iii) ondorioz, DONOSTIA TURISMOA sozietatea izango dela tratamendu horren arduradun bakarra eta eskusiboa eta kontratista, berriz, tratamenduaren arduraduntzat joko da.

Halaber, dokumentazio horren inguruan interesdunari informazioa eman eta hauen baimena jaso beharko da, interesdunen datuak azken produktua osatzen duten hirugarren hornitzaileei lagatzeko.

- Kontratatistaren langileen arteko erabiltzaile bakoitzak bere lana betetzeko eskuratu behar dituen datuak eta/edo baliabideak baino ez ditu eskuratu.
- Kasuan-kasuan segurtasun-neurriak hartuko ditu, DBLOAn aurreikusitakoaren arabera.
- Ezingo da DONOSTIA TURISMOA sozietatea titular den fitxategietako datu errealekin probarik egin.
- DONOSTIA TURISMOA sozietateak hala eskatzen dionean, DONOSTIA TURISMOA sozietatearen kontura tratatutako datuen eta honek emandako dokumentazioaren konfidentzialtasuna eta integritatea ziurtatzeko hartutako neurriak deskribatuko dituen memoria aurkeztuko du.
- Segurtasun-neurri horiek gauzatzeari eta gainbegiratzeaz zuzenean zein zeharka arduratzen den pertsona edo pertsonak jakinaraztea DONOSTIA TURISMOA sozietateari.
- Langileei datuen babesari buruz indarrean dauden arauen ondoriozko betebeharren berri ematea.

- Bai kontratista, bai lizitazio honen xede den kontratuan parte hartzen duten haien langileak behartuta egongo dira kontratuaren indarraldian eskuratzen dituzten edo ezagutzen dituzten datu, dokumentu eta gaien inguruko sekretu profesionalari eustera eta haiek gordetzera.

## **22. KONFIDENTZIALTASUNA**

Esleipenaren publizitateari dagokionez eta lizitatzailerei eman beharreko informazioari dagokionez orri honetan xedatzen denaren kalterik gabe, Kontratazio Organoak ezin izango du zabaldu lizitatzailerek konfidentziazat jo duten informazioa, batez ere, sekretu tekniko edo komertzialekin zerikusirik duenean.

Kontratatistak eta kontratua gauzatzeko esku hartuko duten langile guztiek ezingo dituzte kontratuaren helburuarekin lotuta egongo diren datu, informazio eta aurrekariak ezagutzera eman –publikoak edo ezagunak ez badira–, ez eta lan horiek egiteko ezagutzen dituztenak ere. Halaber, edozein bidetik jasoko dituzten datuak eta informazioa konfidentzialki eta isilpean erabili behar dituzte, hirugarrenek horien berri ez izateko.

Kontratua gauzatzeko DONOSTIA TURISMOA sozietateak kontratistari edozein euskarritan emandako informazioa, dokumentazioa, fitxategiak edo zehaztapenak konfidentzial gisa erabili behar dituzte kontratatistak eta kontratua gauzatzen parte hartzen duten langileek. Datu horiek –osorik edo zati bat– ezingo dira argitaratu, ezagutzera eman edo kontratua gauzatzeko ez den beste helbururako erabili, jakinarazi edo hirugarrenei utzi.

Azkenean kontratatistak bere gain hartuko du zerbitzua gauzatzeko emango dioten edo jasoko duen dokumentazioa leial eta kontu handiz zaintzeko obligazioa. Era horretan, dokumentazioa eta bertan jasotako informazioa kontratua gauzatzen ari ez diren hirugarren pertsonen esku helduko ez direnaren konpromisoa hartzen du.

Kontratatistak ezingo du kontratatutako lanen ondorioz sortutako datuak berarentzako edo hirugarrengoei emateko erabili. Halaber, ezingo du lan horien edukia argitaratu, osorik edo zati batean.

Konfidentzialtasunak iraupen mugagabea edukiko du.

## **23. KONTRATUAREN ARDURADUNA**

Kontratazio Organoak kontratuaren arduraduna izenda dezake. Arduradun horren lana izango da kontratuaren gauzatzea gainbegiratzea eta hitzartutako zerbitzua behar den bezala eskaintzen dela ziurtatzeko jarraibideak ematea eta gauzatzea, berari dagozkion eskumenen barruan.

Kontratuaren arduraduna pertsona fisiko bat edo juridiko bat izan daiteke, DONOSTIA TURISMOA sozietatearen barrukoa edo kanpokoa.



Enpresa kontratistak nahitaez beteko ditu kontratuaren arduradunak ematen dituen jarraibideak.

## **24. ASEGURUAK**

Kontratistari exijitu egingo zaio erantzukizun zibileko aseguru poliza bat harpidetzeko eta kontratuaren iraunaldi osoan mantentzeko. Poliza horrek estali egin beharko ditu kontratua gauzatzearen ondoriozko kalte pertsonalen eta/edo materialen ondoriozko kalteen ordainak, hirugarrenei nahiz DONOSTIA TURISMOA sozietateari eragindakoak izanik ere, gutxienez 600.000 euroko aseguraturako kopururako. Gainera, polizaren kopia bat eta azken ordainketaren agiria aurkeztu beharko ditu.

## **25. KONTRATUA LAGATZEA**

Ezingo da kontratua laga.

## **26. AZPIKONTRATAZIOA**

Kontratutik ondorioztatzen diren eskubide eta betebeharrak azpikontratatu ahal izango dira, baldin eta DONOSTIA TURISMOA sozietateak baimena ematen badu, zehazki eta idatziz. Edonola ere, azpikontratatik lege-betebeharrak eta baldintza-orri honetan DONOSTIA TURISMOA sozietatearekin kontratuak egiteko eskatzen diren betebeharrak bete beharko ditu, ez du kontratatzeke debekurik izango, kaudimen ekonomiko, finantzario, tekniko edo profesionala egiaztatu beharko du, eta esleipendunaren baliabideen eskaintza egiteko konpromisoa bete beharko du. Hori guztia azpikontratazioaren xede den zerbitzugintzari dagokionez.

Azpikontratatistek enpresa kontratistaren aurrean hartzen dute konpromisoa, hortaz, enpresa kontratistak erantzungo du DONOSTIA TURISMOA sozietatearen aurrean eskaintzen duen zerbitzuagatik, betiere ekonomia eta administrazio klausulen agirian, baldintza teknikoaren agirian eta sinatzen den kontratuan adierazitakoari lotuta.

## **27. KONTRATUAREN ALDAKETAK**

Kontratua zehaztu ondoren, Kontratazio Organoak kontratua aldatu ahal izango du, SPKLTBako 107. artikuluan aurreikusitako kasuetan.

## **28. KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA**

Kontratututako zerbitzuen gauzatze egokiaren erantzule izango da kontratista.

Kontratista gauzatutako zerbitzuen eta egindako lanen kalitate teknikoaren arduraduna izango da, bai eta kontratua gauzatzearen ondoriozko egin eza, akats, metodo oker edo emaitza okerrekin hirugarrengoei edo DONOSTIA TURISMOA sozietateari ekarritako ondorio txarrez ere.

Kontratua gauzatzeko eragiketen ondorioz, hirugarrenei eragin ahal zaizkien edo langileek (enpresa esleipendunaren langile propioek edo azpikontratatuak) jasaten dituzten kalte eta galera guztien kalte-ordainak kontratistak ordainduko ditu.

## **29. KONTRATUA ETETEA**

DONOSTIA TURISMOA sozietateak kontratua etetea erabakitzen badu edo SPKLTBako 216. artikuluko 5. atalean, kasu honetan berariaz ezarri beharrekoan xedatutakoa aplikatuz kontratua eteten bada, Akta idatziko da eta kontratua eteteko arrazoiak eta kontratuaren egoera azalduko dira.

Behin kontratua etetea erabaki eta gero, DONOSTIA TURISMOA sozietateak kontratistari jasan dituen kalte eta galerak ordainduko dizkio.

## **30. ZIGORRAK**

Kontratistari egotzi dakizkiokeen arrazoiengatik kontratatutako zerbitzuak oker gauzaten dituenean, edo kontratuko beste baldintza batzuk betetzen ez dituenean, DONOSTIA TURISMOA sozietateak kontratua ezesteko –31. klausulan aurreikusitako baldintzetan– edo gauzaten jarraitzeko aukera du. Azken kasu honetan, bi urteri dagokion kontratuaren prezioaren zati finkoaren % 15a DONOSTIA TURISMOA sozietatearen alde izango da.

Bezereen keza eta erreklamazioen aurrean esleipendunak erantzuten ez badu, erreklamazioaren xede izan den ihesaldi zehatzagatik bezeroak ordaindu beharreko fakturaren % 50% eko zigorra ezarriko zaio. Kasu horretan, erreklamazioa egin duen bezeroari aurkeztutako fakturaren kopia igorri beharko dio esleipendunak DONOSTIA TURISMOA sozietateari.

Zigor guztiak benetan eragin diren kalte eta galerekiko metagarriak izango dira.

Kontratua gauzaten jarraitzeko aukeraren kasuan ere, ez betetzeak dirauen bitartean, DONOSTIA TURISMOA sozietateak edozein unetan erabaki ahal izango du hura deuseztatzea (lehen adierazitako ondorioekin), egokitzen jotzen duen denboraz, bere bitarteko propioak erabiliz edo hirugarrenen bitartez zerbitzua egiten jarraitzeko. Halakoetan, kontratistak ordainduko du jarraipen horren kostua, kalte-galerei eta klausula honetan jasotako gainerako ondorioei kalterik egin gabe.

Zigorak ordaintzeko, kontratistari, ordainketa osoa edo zatikoa egiteko ordaindu beharreko kantitateak murriztuko zaizkio, edo behin betiko bermetik murriztuko dira, aurreko kasuan adierazitakoa egitea ezinezkoa denean; edozein kasutan, erreklamazioa aurkez daiteke, eraturako bermea gainditzen duen kopuruagatik.

### **31. KONTRATUA DEUSEZTATZEA**

Kontratua/k deuseztatzeko arrazoi izango dira SPKLTBaren 223. artikuluko a) –85. artikuluan xedatutakoaren kalterik gabe–, b), d), f), g) eta h) letretan adierazitakoak eta, oro har, kontratuzko edozein betebeharrat hartzea, Kode Zibilaren 1.124. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Klausula horretan kontratua deuseztatzeko aurreikusitako kasurik badago, automatikoki suntsiaraziko da. Kasu horretan, DONOSTIA TURISMOA sozietateak hartu duen erabakia jakinarazi behar dio kontratistari.

Jakinarazpena jaso eta gero, kontratistak DONOSTIA TURISMOA sozietatearen esku utzi behar ditu kontratatu diren zerbitzuak egiteko ordura arte landu edo sortu dituen dokumentu guztiak, DONOSTIA TURISMOA sozietateak erabilitako eta kontratistari emandako dokumentuekin batera. Aipatutako dokumentazio guztia DONOSTIA TURISMOA sozietatearena izango da aurrerantzean.

Ondorio horietarako, gauzatze egoeraren akta idatziko da, eta, bertan, DONOSTIA TURISMOA sozietateak emandakotzat eta jasotakotzat onartzen dituen materiala, dokumentuak eta lana ez ezik, ez-emandakotzat edo ez-jasotakotzat jotzen direnak ere zehaztu beharko ditu, eta ez-jasotzat jotzeko arrazoiak adierazi beharko ditu. Era honetara, DONOSTIA TURISMOA sozietateak kontratua gauzatzen jarraitu ahal izango du, bere kontu edo hirugarren baten bitartez.

Horrez gain, dagokion kontratuaren likidazio ekonomikoa egingo da ondoren, jarraian adierazten denaren arabera.

Klausula honetan aurreikusitako arrazoiengatik edo legez egokiak diren arrazoiengatik kontratua deuseztatzean eragiten diren erantzukizun ekonomikoak, edo legez dagozkionak, kontratua deuseztatzean eta dagokion materiala eta dokumentazioa aurkeztean likidatuko dira. Horrek ez du eragotziko, ordea, DONOSTIA TURISMOA sozietateak hura gauzatzen jarraitu ahal izatea.

Kontratistari egotzi ahal zaizkion arrazoiengatik deuseztatzen bada kontratua, bi urteri dagozkion kontratuaren prezioaren zati finkoaren % 20 pareko kopurua zergapetuko da DONOSTIA TURISMOA sozietatearen alde, izaera metagarriarekin, kasuan kasu ordaindu beharreko kalte eta galeren ordainez gain. Bi kopuru horiek behin betiko bermetik kenduko dira eta, hala badagokio, erreklamazioa egingo da soberaren gainean.

### **32. ARAUBIDE JURIDIKOA ETA ESKUMENEN JURISDIKZIOA**

Prestaketari eta esleipenari dagokienez, kontratua honako hauek arautuko dute: ekonomia eta administrazio klausulen agiriak, baldintza teknikoen agiriak, eta, horietan aurreikusita ez dagoen guztian, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legean horri buruz ezarritako arauak eta SPK Lan ezarritako arauak; eta, hala badagokio, 817/2009 Errege Dekretuak, maiatzaren 8koa eta SPKLaren zatiko garapena egiteko denak (aurrerantzean, 817/2009 ED) adierazitakoak. Horrela egingo da esleitzeko boterea eduki eta herri-administrazioak ez diren sektore publikoko erakundeek araupetze harmonizatutik kanpo egindako kontratuekin.

Ondorioei eta iraungitzeari dagokienez, honakoek arautuko dute kontratua: ekonomia eta administrazio klausulen agiriak eta baldintza teknikoen agiriak, eta, horietan aurreikusita ez dagoen guztian, zuzenbide pribatuko arauak. Kontratuaren aldaketari dagokionean, ordea, ez da halakorik egingo. Kasu honetan SPKLTBaren I. liburuko V. tituluan xedatutakoa aplikatuko dute.

Gainera, SPKLTBa, maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea zati batean garatzen duena (aurrerantzean (817/2009 ED) eta/edo Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua (aurrerantzean, 1098/2001 ED) aplikatzekoak izango dira agiri honek testu arauemaile horietara berariaz jotzen duen guztietan. Era berean, oro har, aplikatzekoa den araudi sektorialean xedatutakoa izango da aplikatzekoa.

Ordina jurisdikzional zibilak izango du kontratua prestatu, esleitu, ondorioak eragin, bete eta iraungiarazteari dagokionez aldean artean sortzen diren gorabeherak ebazteko eskumena.

Kontratuarekin lotuta auzia badago, aldeak Donostiako Epaitegi eta Auzitegien jurisdikzioaren pean jartzen dira.

## **I. ERANSKINA. ABAL EREDUA**

[...] erakundeak (kreditu erakundearen edo elkarren bermerako sozietatearen izena), IFK [...] eta helbidea (jakinarazpen eta errekerimenduetarako) [...(e)an] dituenak, eta haren izenean [...(e)k] (ahalordedunen izen-abizenak), agiri honen behealdean adierazitako ahalorde askiestetik ondorioztatzen denez egintza honetan behartzeko behar beste ahalorde duenak [...] (abaldunen izen-abizenak edo izen soziala), IFK [...] duenak, MILA EUROKO (1.000.- €) kopuruan (letraz eta zenbakiz) ABALATZEN DU, SAN SEBASTIÁN TURISMO/DONOSTIA TURISMOA, SA sozietatearentzat ihesaldi turistikoak kudeatzeko zerbitzua eskaintzeko kontratuaren ondoriozko betebeharrei erantzuteko.

Erakunde abal emaileak, bere erantzukizun pean, adierazten du Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araudi Orokorra onesten duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 56.2. artikuluan adierazitako betebeharrak betetzen dituela. Abal hori notario aurrean sinatzen da obligaziodun nagusiarekin solidarioki, eskusio- eta banaketa-onurari espresuki uko eginda, eta SAN SEBASTIAN TURISMO/DONOSTIA TURISMOA, SAREN lehen errekerimenduan ordaintzeko konpromisoa hartuta.

Abal hau indarrean egongo da SAN SEBASTIAN TURISMO/DONOSTIA TURISMOA, SAK abala kitatzeko edo itzultzeko baimena eman arte.

Lekua eta data [...].

Erakundearen izena [...].

Ahaldun(ar)en sinadura [...].

## II. ERANSKINA. JAKINARAZPENAK JASOTZEKO LEHENTASUNEZKO BITARTEKOA AUKERATZEA

..... jaunak/andreak,..... helbidea eta ..... NAN zenbakia dituenak, bere izenean, edo ..... helbidea eta ..... IFK dituen .....ren ordez, gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoz, ezagutzen ditu SAN SEBASTIAN TURISMO/DONOSTIA TURISMOA, Sarentzat ihesaldi turistikoak kudeatzeko zerbitzua prozedura irekiaren bidez kontratatzeko lizitazioa arautu behar duten ekonomia eta administrazio klausulen agiria eta baldintza teknikoaren agiria, eta SAN SEBASTIAN TURISMO/DONOSTIA TURISMOA, SAK aipatutako lizitazioarekin lotuta egin beharreko jakinarazpen oro, lehentasunez, honako bitartekoa erabiliz egitea nahi du (\*):

- Faxe.
- Posta elektronikoa.
- Posta ziurtatua.

(\*) Adierazi hautatutako bitartekoetako bat.

Nolanahi ere, ondoren adierazitako datuak zehaztuko dira jakinarazpenak egiteko:

- Fax-zk.: .....
- Helbide elektronikoa: .....
- Posta-helbidea: .....
- Harremanetarako telefonoak: .....

*[Oharra: Jakinarazpenak ahalik eta arinen egiteko, lizitazioaren faxari lehentasuna ematea gomendatzen dizuegu. Lizitazioak faxa aukeratu badu, jakinarazpenak fax bidez egingo dira. Hala ere, beste bitarteko bat aukera daiteke. Ez bada aukerarik egiten, posta ziurtatu bidez egingo dira jakinarazpenak, adierazitako helbidean.]*

### III. ERANSKINA. AITORPEN ERANTZULEKO EREDUA

..... jaunak/andreak, ..... helbidea, ..... NAN zk.,  
..... telefonoa, ..... e-maila, bere izenean, edo ..... helbidea eta  
..... NANA edo ..... IFK [pertsona fisikoa edo juridikoa den kontuan  
hartuta] dituen .....ren ordezkari, gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoz,  
ezagutzen ditu SAN SEBASTIÁN TURISMO/DONOSTIA TURISMOA, Sarentzako  
ihesaldi turistikoak kudatzeko zerbitzua kontratatzeko prozedura irekiaren bidez  
kontratatzeko lizitazioa arautuko duten ekonomia- eta administrazio-klausulen eta  
baldintza teknikoaren orria.

#### AITORTZEN DU:

**Lehenena.-** Eskaintza hau aurkezteko datan, SAN SEBASTIÁN TURISMO/DONOSTIA  
TURISMOA, Sarekin kontratatzeko lege ezarritako baldintza guztiak eta ekonomia- eta  
administrazio-klausulen eta baldintza teknikoaren orrian eskatutako gaitasun- eta  
kaudimen-baldintza guztiak betetzen dituela.

(Eskatutako kaudimena egiaztatzeko eta/edo giza baliabide eta baliabide material  
jakinak atxikitzeko konpromiso minimoa betetzeko beste erakunde batzuenetan  
oinarrituko balitz barne hartzeko). Hala eta guztiz ere, bere kaudimena osatzeko eta/edo  
giza baliabide jakin batzuk atxikitzeko konpromiso minimoa betetzeko, kaudimen hori eta  
baliabide horiek enpresarenarekin integratu nahi ditu... Hori hala egiaztatuko du  
bidezkoa denean, lehiatzen duen lizitazioaren Orrietan ezarritako moduan.

**Bigarrena.-** (Enpresa-talde bereko enpresek –halakotzat ulertuko dira Merkataritza  
Kodearen 42.1. artikuluan bildutako kasuren bat gertatzean– kontratuaren esleipenean  
lehiatzeko proposamenak bakarka aurkezten badituzte barne hartu beharrekoa).  
Enpresa beraren sozietateen talde berean sartuta dagoela ordezkatzeko duen enpresa  
..., eta lizitazio honetarako proposamenak ere aurkezten dituela.

**Hirugarrena.-** (Atzerriko enpresen kasuan sartu beharrekoa). Ordezkatzeko duen  
enpresa Espainiako edozein mailatako epaitegi eta auzitegiaren eskumenaren mende  
dagoela, kontratutik zuzenean edo zeharka sor daitekeen gorabehera orotarako, eta  
lizitazioarekin egokituko dakikeen atzerriko foruari uko eginda, hala badagokio.

....., 2015eko .....aren .....a

#### IV. ERANSKINA. AITORPEN ERANTZULEKO EREDUA

..... jaunak/andreak, ..... helbidea, ..... NAN zk.,  
..... telefonoa, ..... e-maila, bere izenean, edo ..... helbidea eta  
..... NANA edo ..... IFK [pertsona fisikoa edo juridikoa den kontuan  
hartuta] dituen .....ren ordez, gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoz,  
ezagutzen ditu SAN SEBASTIÁN TURISMO/DONOSTIA TURISMOA, Sarentzako  
ihesaldi turistikoak kudatzeko zerbitzua kontratatzekeo prozedura irekiaren bidez  
kontratatzekeo lizitazioa arautuko duten ekonomia- eta administrazio-klausulen eta  
baldintza teknikoan orria.

#### AITORTZEN DU:

Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen testu bategina eta gaiari buruz indarrean  
dauden gainerako xedapenak onartzen dituen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu  
Legegilearen 60.1. artikuluan jasota kontratatzekeo bateraezintasunik eta debekurik ez  
duela.

....., 2015eko .....aren .....a

Sin.:.....



## V. ERANSKINA. PROPOSAMEN EKONOMIKOKO EREDUA

..... jaunak/andreak,..... helbidea eta ..... NAN zenbakia dituenak, bere izenean, edo ..... helbidea eta ..... IFK dituen .....ren ordez, gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoz, ezagutzen ditu SAN SEBASTIÁN TURISMO/DONOSTIA TURISMOA, Sarentzat ihesaldi turistikoaren kudeaketa-zerbitzua prozedura irekiaren bidez kontratatzeko lizitazioa arautu behar duten ekonomia eta administrazio klausulen agiria eta baldintza teknikoaren agiria, eta honako hau

### AITORTZEN DU:

1. Konpromisoa hartzen duela kontratuaren denbora osoan ihesaldi turistikoaren kudeaketa-zerbitzua egiteko (SAN SEBASTIÁN TURISMO/DONOSTIA TURISMOA, SAK, hala badagokio, erabakitako urteko luzapenak, gehienez bi urtekoak, barne direla).
2. Epe horren barruan (luzapenak barne direla) konpromisoa hartzen duela adierazitako ihesaldi turistikoaren kudeaketa-zerbitzua egiteko, urteko zenbateko honen truke: [...] euro –dagokion BEZa gehituta; hau da, [...] euro–, prezioaren zati finkoaren kontzeptu gisa.
3. DONOSTIA TURISMOA sozietateak jasoko duen hiruhileko fakturazio-bolumenaren gaineko ehunekoa % [...]an finkatzen duela (gehienez % 5).
4. Ekonomia eta administrazio klausulen agiria eta baldintza teknikoaren agiria ezagutzen dituela, eta berariaz onartzen eta betetzen dituela.
5. Kontratu hau garatzeko indarrean dagoen araudiak ezarritako baldintza eta betekizun guztiak betetzen dituela.
6. Lan eta zerga esparruan indarrean dagoen legeria betetzeko betebeharra hartzen duela.

....., 2015eko .....aren .....a

Sinadura

**VI. ERANSKINA. AITORPEN EREDUA, LIZITATZAILEAK ESKATZEN DEN KAUDIMENA ZIURTATZEKO ETA/EDO GUTXIENEO GIZA BALIABIDEAK ETA BALIABIDE MATERIALAK KONTRATURA ATXIKITZEKO KONPROMISOA BETETZEKO BESTE ERAKUNDE BATZUEN KAUDIMENA ETA GIZA BALIABIDEAK ERABILI BEHAR BADITU**

..... jaunak/andreak, NAN ..... duenak, ..... enpresaren (IFK:.....) legezko ordezkari gisa, adierazi du ezagutzen dituela ..... (enpresa lizitatzaillearen izena) lizitatzailleak **eskatzen zaion kaudimena duela** lehiatuko duen .....a kontratatzeke lizitazioaren baldintzak, eta **esleipendun suertatuz gero, kontratua gauzatzeko behar diren baliabideak lizitatzaille horren esku jartzeko borondate ezeztazina adierazten duela**, Kode Zibileko 1257.2. artikuluan xedatutakoa espresuki onartuta. Hori aldatu edo onartzea DONOSTIA TURISMOA sozietateak baimendu beharko du espresuki.

Idatzi hori aurkeztuz gero, DONOSTIA TURISMOA sozietateak konpromiso hori onartzen duela adieraziko du, baldin eta lizitatzaille hori esleipendun suertatzen bada.

....., 2015eko .....aren .....a.